

# KEZKAMUXELAK

Testua eta irudiak: **ANTHONY BROWNE**

Itzulpena: **KOLDO IZAGIRRE**

Kartoi gogorrean koadernatua. 25 x 27 cm. 32 or. 17 €.

**Kezkamuxelak** (euskara)

ISBN 978-84-9172-018-8. Album irudidunak. Gaur egungo klasikoak.

**Quitapenas** (gaztelania)

ISBN 978-84-1343-329-5. Álbum ilustrado. Clásicos contemporáneos.

**Sacapenas** (galegoa)

ISBN 978-84-8464-585-6. Álbum ilustrado. Tras os montes.

**Menjacabòries** (katalana)

ISBN 978-84-8464-707-2. Àlbum il·lustrat. Clàssics contemporanis.

**As preocupações do Billy** (portugesa)

ISBN 978-972-8781-49-1. Álbum ilustrado. Clássicos contemporâneos.

*Ibai beti dago kezkatan. Kapeluek eta zapatek kezkatzen dute.*

*Hala berean kezkatzen dute hodeiek, euriak eta txori erraldoiek.*

*Bere amona ere, neskatoa zelarik, kezka batean bizi zen,*

*horregatik daki nola lagundu behar dion bilobari.*

Beste kultura baten ateak zabaltzen dizkigun sinboloa dira

“Kezkamuxelak” izeneko mamuxela edo panpina bereziak. Aspaldi du Guatemalako haurrek panpinok egiten dituztela txotxex, zatartxo eta hariz; lotarakoan beren kezka kontatzen dizkiete eta burukoaren azpian uzten dituzte, biharamunean kezkarik gabe jaiki ahal izateko.

Anthony Brownek misterioz beteriko ipuina osatu du,


giro harrigarri hori indartzen duten irudiak dituela lagungarri.

Tentsio-uneak kolorearen arabera daude mailakatuak:

Ibairen kezkaldiak grisean daude emanak, beldur giroa nabarmenduz; aitzitik, kolorez gainezka datoz beste orrialdeak, “kezkamuxelak” ageri direnak bereziki, mamuxela edo panpina hauen eragin onuragarria adieraziz.

Anthony Browneren estiloak irudien errealismoa eta gizakia

itxuratzen duen xehetasuna ditu ezaugarri: aieruen marraz, azalaren zimurrak. Ibairen bizitzako atseginaldiak familiarean gertatzen dira, giro lasaigarria emanez. Alabaina, kezkek hartua dutenean, amets, eldarnio eta jatorri surrealista formak ageri dira. Amonak emango dio Ibairi ezinegon eta nahigabe horren sendagarria.



■ **Gala:** haurren kezka eta izuak uxatzeko sendagarria.

■ **Adin egokia:** 4 urtetik goiti.

■ **Nabarmenezko modukoak:** “kezkamuxelak” izeneko mamuxela edo panpinen jatorria, irudi errealistak eta osagarri errealista eta iirudimenezkoen nahastea; baloreen heziketa lantzen duen “Urdaburutarrak” ipuinaren ondoren, “Kezkamuxelak” honek izuei eta kezkei aurre egiteko behar den kemena dauka langai; “Eder Txikia”, “Ernesto elefantea”, “Basoan barrena”, “Osteratxo bat parkean”, “Nola sentitzen zara?”, “Gorila bat. Zenbatzeko liburu”.

■ **Liburu-aurreapena:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/kezkamuxelak-eusk>

## Anthony Browne

(Sheffield, Ingalaterra, 1946)

Leeds College of Art-en egin zituen ikasketak, eta diseinu grafikoan trebatu zen. Gizakia irudikatzeko daukan perfekzio-beharra Manchester-en etorri zitzaion, bertako ospital batean osasun gaien marrazkilari gisa ibili zenean. Geroago hasi zen haurrentzako ipuinak sortzen eta apaintzen, zorion postalak margotzeki ekin zionetik. Browne-ren estiloan margolari surrealisten eragina atzeman liteke, eta maite ditu gertaldi onirikoak eta osagarri bitxiak. Bere ibilbidean jaso dituen sarien artean Kate Greenaway domina eta Kurt Maschler saria aipa litezke, baina oroz gain nabarmenezkoa da 2.000 urteko Hans Christian Andersen saria, bere obra osoarengatik. Sari hau irabazitako aurreragoko britaniarrak 1956an jaso zuen. Hizkera plastikoarekiko loturak eta ikusi eta irakurtzeko molde berriak saiatu dituzten egile ingelesetan ezagunenetakoa da. Adibide bikainak dira *Gorila*, *Urdaburutarrak* (Kalandrakak argitaratua euskaraz, galegoz eta portugesez), *Aldaketak*, *Tunela*, *Zoologi-koa* eta *Willy* saila. Kritikoek diote Browne-ren lanak lotura kultural eta artistikoz beteriko mudua sortzen duela, testua osatzeko eta interpretatzeko irakur-learen inteligentzia zorrotzen dituzten arrasto eta gako bisualak eskaintzen dituela, adina kontuan hartu gabe.

www. **kalandraka** .com  
comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com  
etxea  
soltxate@pamiela.com